

SOKATIRA. Euskal Herriko Txapelketako gizonzkoen 600 kilokoek ekingo diote lehiari

Sokari lehen estutuak, gaur

Abadiño delarik txapelduna, finalerako sei txartelak eskuratzeko aitzin jardunaldia ikusgai


Koldo Alduntzin | DONOSTIA

Txapelketa aurreko prestakuntzak amaituta, gaur hasiko da goma gaineko Euskal Herriko Txapelketa, Lesakan (Nafarroa). Txapelketa horren arautegian badira bi gauza zorrotz segitu beharrekoak: Pisaketa eta saioen hasiera ordutegia. Larunbatetako saioetan, pisaketa 14:00etatik 16:00etara egingo dute, eta tiraldiak, 17:00etan hasiko dira. Igandeko jardunaldietan, pisaketa 08:00etatik 10:00etara egingo dute, eta tiraldien hasiera, 11:00etan.

Gaur pisurik taldetsuenak ekingo dio lehiari, gizonzkoen 600 kilokoak. Bi multzotan jardungo dute lehiari hamaika taldeek. Lehen multzoa: Bizkaiko Abadiño eta Sokarri A, Nafarroako Ezkabaondoa eta Berriozar, Gipuzkoako Auzolan eta Lapurdiko Ñapurak B. Bigarren multzoa: Nafarroako Beti Gazte eta Txantrea, Bizkaiko Torrekolanda eta Sokarri B eta Lapurdiko Ñapurak A. Sailkapeneko bi jardunaldi jokatu dituzte, eta multzo bakoitzeko aurreneko hiru sailkatuek lortuko dute finalerako txartela.

Ezkabaondoa eta Berriozar lehen aldiz, eta Ñapurak berri

Nafarroako Txapelketan Maila Nagusian lehen aldiz lehiatu ondoren, Ezkabaondoa eta Berriozarrek beren ausardia erakutsi dute, eta kezkarekin bai baina beldurrik gabe, Euskal



KOLDO ALDUNTZIN

Ezkabaondoa taldekoak Nafarroako Txapelketako tiraldi batean, Berriozarren.

XEHETASUN BATZUK

Bi gomatan jokatu dira tiraldiak, epaile bat ariko da, eta, erretxina eta kautxozko xaflak erabili ahal izango dira zapatiletan

Herrikoa jokatzeko delibatu dute. Pisu horretan, Ezkabaondoa azken aurreko sailkatu zen eta Berriozar azkena. Ezkabaondoa, Ezkaba bilarako tirariak hartzen ditu, eta batez ere, Burlatakoak.

Gainera, elkarren kontra lehiatzea suertatu zaie, lehen

multzoan. Kontuan hartuta iazko azken sailkapena honokoa izan zela: 1. Abadiño, 2. Areso, 3. Torrekolanda, 4. Badaiotz eta 5. Auzolan Igeldo, bistan da Abadiño albo batera utzita, gainerako arteen lehia izango dela. Hala ere, Auzolanek, Ñapurak eta Sokarrik urte batzuetako eskarmentua dute, eta pentsatzekoa da horien artean egongo direla finalerako beste bi txartelak. Ñapurak Euskal Herrikoan aritzeko erronka jarri zion bere buruari, eta ziur gauden neurria emango duela.

Bigarren multzoan, txartelak lortzeko lehia estuagoa izango da; horietako bat Beti Gazteren-

Gaurko saioa

Txapelketa: Euskal Herrikoa. Gizonzkoen 600 kiloko lehen jardunaldia. lehen eta 2. multzoak.

Lekua: Lesakako (Nafarroa) pilotalekua.

Ordua: 17:00.

tzat izan beharko luke. Torrekolanda 3. izan zen iaz, eta Leioatik joandako tiralarien laguntza izan dezake. Txantrea nafarrak, berriz, sasoiko amaitu zuen Nafarroako Txapelketa. Bestalde, ikusi egin beharko da Ñapurak eta Sokarrik zein zortziko kantzaratzen duten.

Nesken saiorik ez da gaur, baina azken berria da Burlatak uko egin diola txapelketari.

IZOTZ HOCKEYA. Gaur amaituko da 2. fasea, baina Hormadik etzi jokatu du gibeleratutako partida


Iazko finalistak aurrez aurre, elkar menderatu eta gorantz egiteko erronka dutela jokoan

K. Alduntzin | DONOSTIA

Etiket at erdiesten ez duena etxean erdiesteko erronka du Angeluko Hormadik Rouen txapeldunaren kontra, gaur. Baina Rouenek ere badu bere erronka, iazko bidea aski galdua baitu, asteartean Grenoble 6-4 irabazi arren. Bigarren faseko azken jardunaldia jokatu da gaur, eta Hormadi-Rouen neurketaz gain, Amiens-Reims eta Angers-Mulhouse jokatu dira. Hormadik, hala ere, gibeleratutako partida bat du orain-

dik, Grenoble kontrako, eta astelehenean jokatu du, La Barren. Astelehenean jokatzeko ez da oso arrunta, baina alpetarrek asteazkenean berriro lehia dute Reimsen kontra.

Hormadik ez zuen neurria eman Mulhousen (4-1), asteazkenean, eta ez dute angelutarrek hura hobetzeko zailtasunik ukanen. «Irabaz genezakeen partida zen, baina ez genuen behar bezain sutsu jokatu», dio Xabier Daramyk. Lapurtarra taldeko golegile nagusia da 12 golekin, baina asistentziak egi-



KOLDO ALDUNTZIN

Xabier Daramy.

ten hobeto dihardute Ducharmek, Dostalek eta Ouelletek.

«Niri dagokidanez, sasoiko nabil, baina taldea da kontua. Mulhousen 2-1 ere jarri ginen, baina sarritan gertatzen zaigun

bezala, arreta galdu genuen», nabarmendu du gazteak. Gaurko lehiari buruz, «Akatsak zuzendu, eta hastapenetik sutsu jokatu behar dugu. Roueni 7-3 irabazi genion lehen fasean, eta hura errepikatzea da xede».

Gordobil etxean da osatuta, eta ziurrenik La Barren izango da. «Lerroetan aldaketak egingo ditugu; batez ere, defentsan. Smidriak Lahtinenekin egingo du bikoia eta Filipinek Du-boisekin», dio donostiarrak.

Hormadi-Rouen

Xapelgoa: Frantziako Elite Ligako 28. jardunaldia; bigarren faseko azkena.

Sailkapena: Hormadi 7. (15 p.), Rouen 4. (27 p.).

Lekua: Angeluko La Barre hormadia.

Orena: 20:00.

ESKUBALOIA

600.000 euro inguru irabaziko ditu Cazalek Alemanian, hiru denboralditan

Erredakzioa | DONOSTIA

Bere bizitzako kontratua sinatuko du Bidasoako Patrick Cazalek Alemaniako Tusem Essen taldearekin. Reunion Uharteko jokalaria 600.000 euro inguru irabaziko ditu hiru denboraldietan, zergak ordainduta. Horrelako eskaintzaren aurrean ezinezkoa izan zaio ezetzik esatea, Bidasoan oso gustura zegoen arren. Patrick Cazalek 30 urte ditu eta kontratu honekin bere etorkizuna ziurtaturik uzteko aukera izango du. Bere ordezkari Juan Jose Franchok atzo adierazi zuenez Cazalek Irunen gelditzeko gogoia zuen: «Bera eta bere familia oso gustura daude hemen, Frantziatik gertu bizi dira, klubarekin eta jokalariekin oso pozik zegoen, baina ezinezkoa izan da Alemaniako eskaintza parekatzea». Aurreko egunetan komunibideetan azaldu diru kopuruak ez omen dira egiazkoak. Franchok ez du kopururik eman nahi izan, baina Cazalek urtean 200.000 euro inguru irabaziko ditu, garbi, zergak Tusem Essenek ordainduko baititu.

Bidasoako presidente Javier Sesmak onartu du Alemaniatik etorritako eskaintzari aurre egiteko modurik ez zutela, eta zuzena ikusten du Cazalek egin aukera. Gainera, jokalaria Bidasoan amaituko du denboraldia, eta horrek denbora ematen du ordeko duin bat bilatzeko. Ez da erraza izango, baina Cazalek kobratzen duenarekin jokalaria on bat ekar daiteke.

Akabak itzulikoa jokatu du gaur Erreterian

EHF Kopako lehen kanporaketa aise gaudituko du Akaba Bera Berak, joaneko partidaren 26-10 irabazi baitzion Esloveniako RK Zalec taldeari. Gaur itzulikoa jokatu dute Erreterian (12:00etan, ETB1), eta ezustekoa litzateke Akabak irabazteko arazoak izatea. Dena den, Reyes Karrere entrenatzaileak uste du bigarren hau lehenengoa bai- no zailagoa izango dela.